

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1259

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 27koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinaren bidez aldatzen baita honako xede honekin dirulaguntzak emango dituen balorazio-batzordearen osaera: Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkariak duten gizarte-eragileek, beren jarduera-eremuan, 2023ko ekitaldian kompetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzekeko prozedura sustatu eta bultzatzeko jarduerak garatzea.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 27ko Aginduaren bidez (2023ko urtarrilaren 11ko EHAA, 7. zk.), Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkariak duten gizarte-eragileek 2023ko ekitaldian kompetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzekeko prozedura sustatu eta bultzatzeko jarduerak beren jarduera-eremuan garatzeko dirulaguntzen deialdia egin zen.

Agindu horren 11.1 artikulua eskabideak baloratzeko batzordearen osaera ezartzen du. Bat-batean balorazio-batzordearen osaera aldatzeko beharra sortu denez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argiñe Lopez Poblacion, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikaria, edo haren ordezkaria, balorazio-batzordeko kide izendatzea, Maite Lizartza Urrestarazuren ordezkari.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako ondorioak izan ditzan eta jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 27koa.

Lanbide Heziketako sailburuordea,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.